

## LAGUNDU, LAGUNDU!<sup>1</sup>

Jendea Jesusi galderak egin eta egin aritzen zen. Egun batean maisu bat hurbildu zitzaion.

-Badakit Jainkoa maitatu behar dugula- esan zuen-. Eta badakit Jainkoak nahi duela besteez arduratzea, besteei laguntzea. Baina... nori lagundu behar diogu? Gure adiskideei edo ezagutzen dugun edonori?

Orduan Jesusek parabola hau kontatu zion...

“Bazihoan behin gizon bat bide bakarti batean barrena. Halako batean, bidelapur batzuek eraso egin zioten. - Lagundu, lagundu! Egin zuen oihu gizonak, vaina ez zion inortxok entzun.

Bidelapur zital gaizto haiek egurtu eta zauritu egin zuten gizona. Gero, dirua kendu ondoren, ihes egin zuten. Bide bazterrean utzi egin zuten botata.

-Atx!- zioen gizonak min-oiazetan.

Gorputz guztia zuen minduta. Eguzki-galdatan zerraldo zegoen eta ez zuen indarririk jaikitzeke ere.

Handik gutxira, pauso-hotsak entzun zituen. Pauso-hotsak gero eta hurbilago zeuden.

- Azkenean, badator norbait niri laguntzera! - pentsatu zuen gizonak

Baina pauso-hotsak urrundu egin ziren. Norbaitek ikusi zuen bai, vaina ez zen hurbildu laguntzera.

-Atx!- gizonakexuka. Gaizki ere gaizki zegoen.

Denbora luzea igaro zen.

Orduan pauso-hotsak entzun zituen berriro. Pauso-hotsak gero eta hurbilago.

-Azkenean, badator norbait niri laguntzera!- pentsatu zuen gizonak.

Baina, berriz ere, urrundu ziren pauso-hotsak. Beste norbaitek ikusi zuen bai, vaina ez zion lagundu nahi izan!

Gizona gero eta okerrago zegoen.

Iluntzen ari zuen veste zarata bat entzun zuenean.

“Ttaki-ttaka! Ttaki-ttaka!”

Bidean behera no redo nor zetorren, asto gainean. Beste herri bateko, herri etsai bateko

gizona zen. Hala ere, zauritutako gizona ikusi zuenean, gelditu egin zen.

-Laguntza behar duzu- esan zuen bidaiariak.

Horrenbesez, gizonaren zauriak garbitu eta lotu zituen. Gero, kontu handiz igo zuen asto gainera.

Handik laster, ostatu batera heldu ziren.

-Bidelapur maltzur gaizto batzuek zauritu dute gizajo hau. Dirua lapurtu eta ihes egin dute- azaldu zion bidaiariak ostatuko nagusiari-. Ongi zaindu behar dugu.

Biharamunean bidaiariak joan egin behar zuen, bidean Aurrera jarraitu.

-Hemen duzu diru pixka bat- esan zion ostatuko nagusiari-. Espero du aski izatea. Zain ezazu gizon hau, sendatzen den arte. Diru gehiago kostatzen bada, itzultzen naizenean ordainduko dizut.”

Parabola bukatuta, Jesusek galdera bate gin zion maisuari:

-Esadazu, gizon horietatik nork jokatu zuen Jainkoak nahi zuen bezala?

-Bidean gelditu eta zauritutako gizonari lagundu zionak - erantzun zuen maisuak.

-Orduan, hark bezala egin - esan zion Jesusek-. Bihotz onekoa izan zure laguntza behar duten guztiekin. Ez bakarrik zure lagunekin edo ezagutzen duzun jendearekin, guztiekin baizik.

---

<sup>1</sup> Alexander, P. “Zure lehen Biblia”. Ed. Edebé, 1997, págs. 370

